

11. Lekararozko Kaputxinoen Ikasguko mutil ezpatadantzariak Euskaltzaindiaren izenean askari on bat emon.

12. *Diccionario de la rima* egiteko arazoa Elgezabal jaunak artu daiala eskatu bekio.

13. Azpařengo auzapezari udal-etxea eskatu, datoren ilaren 8-an goizeko bederatzietan zabalik itxi daigula, Lakonbe jaunaren euskaltzain-sařeran izango dan batzar-agiria bertan ospatu al izateko.

Azkenez, ezkufitz batzuk irakufi ondorean, eta uręngo batzarak Azpařen-en Epailaren 7-an eta 8'an izango dirala izentaurik, oi dan otoitzarekin batzaldi onek amaitu zirean.

Azpařen' en, Udaletxean, 1921'ko Epaila' ren 7' an.

Batzař agiria izan zan euskeraren batasuna gaya izanik.

Maipuruan, Azkue, Olabide, Landeřetxe ta Altube euskaltzaiņak, Lakonbe euskaltzain autatua, Belaus-tegigoitia, St. Pierre, Elizalde ta Leon uręazleak, jesaři zirean, beredin entzule aurean zireala, beren artean Gerger, Upsala'ko *Privat Docent*-irakasle euskalarigaia.

Batzaldi onetarako bialduriko, Aita Oyeregi, Anabitarte eta Jauregi jaunen txosten edo ikerpenak irakufi ondorean, Jean Saint-Pierre uręazle jauniak bere aburua, Lapurdi'ko euskalkiaren alde, itzez, azaldu eban eta beste barik azken-otoitzarekin, oi danez, batzaldi au amaitu zan.